


INGURUMEN- JARDUNBIDE EGOKIEN ESKULIBURUA

ERDI AROKO HIRIGUNEKO ENPRESA ZENTROKO ENPREZENTZAT



EUROPAKO HIRIBURU BERDEA

Nazioarteko aitormena ekarri zion 'Europako Hiriburu Berdea' izendapenak Gasteiz ingurumenaren alorrean urratzen ari zen bideari. Hortaz, ezinbestekoa da, aurrera begira, bestelako helburu edo xedeak finkatzea, ez baitago bide guztia egina, bai baitago zereginik oraindik ere.

Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saila urrats sendoak egiten ari da jasangarritasun-politikan. Bistan da gure egungo jardunak alderdi sozial eta ekonomikoak aintzat hartzen dituela, eta, zer esanik ez, ingurumenaren alorrekoetan ere aurrera egin nahi dugu. Hartara, garapen jasangarriak xede duen triangelu aldeakideta osatzea lortu nahi da.

Ingurumen-kudeaketako sistema bat ezartzea ingurumenaren alorreko araudia beteko dela bermatzeko modu egokia dela uste dugu, jakina, baina baita enpresen alorrean ingurumenarekiko begirunea eta erantzukizun-irizpideak lantzeko ere.

Gainera, kudeaketa-sistema horiei dagokien metodologiak beste maila batzuetan ere badakar abantailarik, hala nola baliabideen kontsumoan suertatzen den aurrezpena eta efizientzia, edo merkatu zorrotzagoei begira jartzeko eta besterengandik bereizteko ematen duen aukera.

Horrenbestez, administrazio publikoek eredu izan behar dutela jakitun izanik, Erdi Aroko Hiriguneko Enpresa Zentroan Ekoscan araua ezartzea xede hartu dugu.

Horrela, sail bezala sistema ezartzeko konpromisoa gure egiteaz gain, zabalkundea emango diegu, enpresa zentroko enpresen artean, jardueren kudeaketan ingurumen eta jasangarritasun irizpideak integratzeak dituen alde on eta abantaileri.

Enpresa guztiak animatzen ditugu proiektuan murgiltzera, eta guztion ahaleginak

Argitalpena:
Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko
Iraunkorraren Saila.
Vitoria-Gasteizko Udala.

Prestatzailea:
Desarrolla Sostenible.
alba@desarrollasostenible.com
2015 Vitoria -Gasteiz



AURKIBIDEA

1. JARDUERA-EREMUA	4
2. INGURUMEN-GLOSARIOA	4
3. BALIABIDEEN SARRERA	7
4. BALIBIDE MATERIALAK ETA INSTALAZIOAK	7
5. IRTEERAK	8
6. INGURUMEN-JARDUNBIDE EZEGOKIAK	9
7. INGURUMEN-JARDUNBIDE EGOKIAK	10
7.1. Energiaren kudeaketa	
7.2. Uraren kudeaketa	
7.3. Produktu eta hondakinen kontsumoaren kudeaketa	
8. EKOETIKETAK	12
9. ZER GEHIAGO EGIN DEZAKEGU?	14
9.1. Ingurumen-kudeaketako sistemak	
9.2. Ingurumen-aztarnak	
9.3. Konpentsazio-neurriak	
9.4. Prestakuntza	



1. JARDUERA-EREMUA

Erdi Aroko Hiriguneko Enpresa Zentroan dauden enpresak, baita espazioaren administratzaile den udalaren jarduera ere, 'administrazioa, bulegoak eta merkataritza' multzoan sar daitezke.

Eguneroko jarduneko praxi oker batek izan ditzakeen eragin kaltegarriez jabetzen lagunduko digu agiri honek, eta gure enpresek ingurunean eragin litzaketen kalteak alaitz gehien murriztu edo erabat desagerraraziko dituzten jardunbideak geureganatzeko modua erraztuko.

Esan gabe doa kasu gehienetan zentzu komuna dela laguntzarik onena, ohitura arduratsuak geureganatzeko orduan. Bestalde, enpresa bakoitzak bere berezitasunak ditu, eta jardunbide egokiak mekanizatzeak errazago egingo du kasuan kasu konponbide ekologikoak aurkitzea.

Jakina, informazio honek urte batzuen buruan ere balioko du enpresa horientzat, beste edonora aldatzen direlarik ere.

2. INGURUMEN GLOSARIOA

Uste dugu garrantzitsua dela pedagogia lantzea ingurumenaren eta jasangarritasunaren inguruan, ezagutzaren bitartez lor dadin ohiturak aldatzea eta konpromisoak hartzea.

Hartara, errazagoa da lortu nahi duguna lortzeak duen garrantziaz jabetzea, eta, aurrerantzean, norberaren gizarte inguru osora zabaltzea hori.

Horregatik, glosario bat eskaintzen dugu hemen, lagungarri izan dadin terminologia egoki erabiltzeko eta zertan ari garen hobeto ulertzeko.



INGURUMEN GLOSARIOA

Azpiproduktua: Prozesu jakin bateko hondakina zertarako balia litekeen pentsatzen jarriz gero, beste erabilera bat aurki dakioke zenbaitetan, lehengai edo produktu berri gisa.

Balioa ematea: Lehengai gisa hondakinak baliatzen diren prozesuen bidez energia lortzea.

Berotegi-efektuko gasak: Atmosferan pilatzen diren gasak —batzuk modu naturalean—, beroari kanporatzea galarazten diotenak; horren ondorioz, tenperatura orokorrak gora egiten du.

Berrerabilitzea: Itxura batean eman beharrekoak emanak dituen produktu jakin bat luzarago erabiltzen jarraitzea, hondakin bihurtu aurretik.

Biodegradagarri: Mikroorganismoen liseriketa dela medio gertatzen diren prozesu biologikoen bitartez deskonposatu daitekeen gaia.

Biodibertsitatea: Izaki bizidun guztien eta horien ekosistemen multzoa da. Espezie guztiak elkarrekin erlazionatuta daude, eta beharrezkoak dira planetaren orekarako.

Birziklatzea: Hondakin jakin bat lehengai bihurtzea. Hainbat prozesuren bitartez, hondakin jakin bat produktu berria ekoizteko balia daiteke, edo beste erabilera batzuk eman.

Ekoetiketa: Erakunde eskudun batek ematen duen etika bat da, non egiaztatzen den dena delako produktua ingumenarekiko begirunea zainduz ekoizti dela.

Ekosistema: Espazio jakin batean bizi diren eta elkarrekin erlazionatuta dauden espezien multzoa da (flora, fauna).

Ekotasa: Produktu jakin bati lotutako zerga bat da, produktu horrek ingurumenean sortzen duen eragina gutxitzeko baliatzen dena.

Energia berriztagarria: 'Ordezko energiak' ere esan ohi zaie. Agortzen ez direnak dira: eguzki energia, eolikoa, geotermikoa...

Energia-eraginkortasuna: Tresna, ekipu eta instalazioen optimizazioa, energia-kontsumoa urritze aldera.

Emisioa: Dena delako prozesuaren ondorio diren eta gehien bat kutsatzaileak izan ohi diren gas edo partikulen irteera.

Garapen jasangarria: Eguno belaunaldien garapena etorkizuneko belaunaldien aukerak kolokan jarri gabe gauzatzea esan nahi du. Gure beharrak bete bai, baina gure seme-alabei eta bilobei beren premiak asetzea galarazi gabe egitekotan, arduraz kontsumitu, jardun eta planifikatu beharra dago.

Garbigunea: Hondakinak gaika biltzeko egokitutako lekua.



INGURUMEN GLOSARIOA

Hondakina: Prozesu baten emaitza, dagoneko inongo erabilerarik eman ezin zaiona; horrenbestez, baztertu eta behar bezala kudeatu behar da.

Ingurumen-inpaktua: Giza-jardueren eragina, ingurumenean.

Ingurumen-jardunbide egokiak: Norberaren jardun pertsonalean nahiz lanean, ingurumenarekiko begirunez burutzen diren jarduerak oro biltzen dira izendapen horretan.

Ingurumen-kudeaketako sistema: Ingurumen-aldagaia enpresan txertatzeko prozeduren multzoa. Zeharka, egitura, prozesu, plangintza eta bestek ingurumenean duten eragina aztertzen da, murrizte aldera. Ezinbestean, ingurumenaren alorreko legedia betetzen dela ziurtatzen da.



Isurketa: Dena delako prozesuaren ondorio diren eta gehien bat kutsatzaileak izan ohi diren likidoen irteera. Erreka batera, kolektore batera nahiz araztegi joan daiteke. Dagokien baimena behar dute.

Jasangarritasuna: Ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-baldintzen oreka bilatuz jarduten deneko prozesua. Edozein ekintza edo plangintzari aplikatu dakioke, eta begirunez eta arduraz jokatzeko dakar berekin.

Klima-aldaketa: Planetako klimak giza jardueren eraginez jasaten ari diren aldakuntzak dira; estu lotuta daude industriak sortzen dituen emisioekin eta erregai fosilak erretzearekin. Aldakuntza horiek zuzenean eragiten diote biodibertsitateari (giza espeziea barne), muturretara eramaten baititu fenomeno meteorologikoak, eta urtaroko aldatzen.

Klorofluorokarburoak (CFC): Gai kimiko artifizialak dira, hainbat produktutan erabiltzen direnak, hala nola aerosoletan, apar plastikoetan, hozteko tresnetan eta informatika-ekipoetako txipetan. Zuzenean eragiten diote ozono-geruzari, murriztu egiten baitute, eta berotegi-efektua areagotzen.

Kontsumo arduratsua: Ondasunak eta zerbitzuak ingurumen- eta gizarte-irizpideak aintzat harturik kontsumitzea esan nahi du. Duintasun-baldintzetan eta ingurune naturala errespetatuz ekoizten diren produktuak erosteko aukera eskaintzen du bidezko merkataritzak. Ekoetiketak ere aintzat hartzekoak dira, erosketak egiteko orduan.

Kutsadura: Ingurumenearen propietate naturalak —fisikoak, kimikoak, biologikoak— aldatzea esan nahi du, eta eragin kaltegarriak sortzea.

Murriztu, berrerabili eta birziklatzea: Arlo honetako funtsezko hiru jarraibide —segida horretan—.

3. BALIABIDEEN SARRERA



Lehengaiak eta kontsumogaiak:

- Energia elektrikoa
- Ura
- Folioak
- Boligrafoak, errotuladoreak, lapitzak
- Borrakomak
- Itsasgarria
- Gutun-azalak
- Inprimakiak
- Karpetak
- Etiketak
- Tinta kartutxo edo tonerrak
- Informatika-materiala eta abar

4. BALIABIDE MATERIALAK ETA INSTALAZIOAK



Erremintak, tresnak, makinak, ekipoa, instalazioak eta espazioak:

- Altzariak
- Apalategi eta artxiboak
- Informatika-tresnak eta modemak
- Inprimagailu eta fotokopiagailuak
- Telefonoak
- Kalkulagailuak
- Erretiluak, fitxategiak, guraizeak, txartel-kaxak eta grapagailuak.
- Agendak
- Bulegoak, harrera-lekuak, komunak eta biltegiak.
- Klimatizazioa eta argiztapena.
- Konexio elektrikoak.
- Sareetarako kabletzte sistemak.
- Komunikazio-sistemak eta abar

5. HONDAKINEN IRTEERA



Jardueran sortzen diren hondakin, emisio eta isurketak sartzen dira.

Hiri hondakinak —etxeetan sortzen direnen parekotzat jo daitezkeenak— botatzeko, baita tonerrak, kartutxoak, pilak eta CD/DVDak ere, edukiontziak daude Erdi Aroko Hiriguneko Enpresa Zentroko esparru komunetan.

Zentroko enpresek honela kudeatu behar dituzte beren hondakinak:

- **Etxeetan sortzen direnen parekotzat jo daitezkeen hondakinak:** jatorrian bereizi behar dira, eta zentroko esparru komunetan horretarako jarrita dauden edukiontzietan utzi. Zehazki:
 - **2 edukiontzi atsedeen-gelan:**
Gainerako hondakinak: zaborra
Ontziak: kafe-makinako ontziak, botilatxoak, potoak...
 - **4 edukiontzi atondoan:**
Papera eta kartoia
Ontziak
Tonerrak eta kartutxoak
Gainerako hondakinak
 - **2 edukiontzi kudeaketa-bulegoan:**
Pilak
CD/DVDak
- **Emisioak:** Zentroko berokuntza-sistemaren emisioez gain, ez da bestelako emisiorik aurreikusten, bertan dauden enpresen jarduera-mota aintzat harturik, baina ezin ahaztu gure jarduerak berekin dakarten mugikortasuna. Ibilgailu pribatu motordunak modu arduratsuan erabili behar ditugu, gehiegikeriarik gabe.
- **Isurketak:** Garbiketaren ondorioz eta zentroko komunetan sortzen direnak. Kolektoreetara isurtzen diren hondakinak murrizten laguntzen du instalazioak modu egokian erabiltzeak.

6. INGURUMEN JARDUNBIDE EZEGOKIAK

Begi bistakoa da arduraz eta ingurumen-inpaktuak al bait gehien kontrolatuz jarduteko erabateko nahia dagoela Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saila.

Era berean, jakin badakigu enpresa zentroan kokatutako enpresek ahaleginak egiten dituztela arlo horretan.

Nolanahi ere, jardunbide okerrak identifikatzea jarduera modu egokian bideratzen ikasteko modu bat dela uste dugu.

Horregatik aipatu ditugu zerrenda honetan jardunbide ezegokiak:

Arreta berezia eskatzen duten egunez eguneko egoerak:

- Klimatizazioa ongi ez erabiltzea.
- Argi naturala ez baliatzea argiztatzeko eta berotzeko.
- Berokuntza jarrita dagoela leihoak zabaltzea.
- Ura alferrik galtzea.
- Behar baino paper gehiago gastatzea.
- Erabilitako papera berriro erabiltzeko ez gordetzea.
- Behar diren baino suntsigarri gehiago pilatzea, eta stocka ez kontrolatzea.
- Instalazioak onik ez zaintzea, isuriek in ez ikusiarena egitea, edo zentroko koordinatzaileari horien berri ez ematea.
- Garbiketa egitean behar baino produktu kimiko gehiago erabiltzea, edo etiketa ekologikoa ez dutenak.
- Joan-etorrietarako autoa behar baino gehiago erabiltzea.



7. INGURUMEN JARDUNBIDE EGOKIAK



Egunez eguneko hainbat alderdi kudeatzeari dagokionez informazio eta konponbide gehien eskaintzen dituen atala da hau, eta, beraz, luzeena. Jardunbide hauek lagungarri izango dira enpresa zentroak berak eta bertako enpresek ingurumenarekiko begirune handiagoa erakuts dezaten beren jardueretan, eta, gainera, errentagarriago eta eraginkorrago egingo dira horiek.

Enpresetan langile berririk hartuz gero, garrantzia handia izango dute komunikazioak eta sensibilizazioak, hartara haiek ere hemen azaltzen diren kontuez ohartaraztea lortuko baita. Bestalde, itemetako asko baliagarri izan daitezke hobekuntza-helburuak finkatzeko, eta, hartara, aurrera egin eta ingurumen-kudeaketako sisteman ezarritako betebeharrak —edo erabakitzen diren bestelakoak— betetze aldera.

Zalantzarik gabe, ingurumenaren alorreko legedia betetzea jardunbide onak bermatzeko modu bat da. Nolanahi ere, jarrera ona da akuilurik onena, modu arduratsuan jokatzeko eta egokitu daitezkeen berezitasunen aurrean konponbiderik egokienak aurkitzeko.

7.1. Energiaren kudeaketa

- Tresna informatiko eraginkorragoak erabiltzea, eta energia aurrezteko moduan konfiguratzea.
- Ordubete baino gehiago egingo bada tresna informatikoak erabili gabe, horiek itzaltzea.
- Pantaila behar bezala konfiguratzea, 10 minutu erabili gabe egonez gero ilundu dadin.
- Etengailua duten konexio-blokeak erabiltzea, tresnak entxufatzeko, eta luzaro erabiliko ez badira itzaltzea, stand-by egoeran utzi beharrean.
- Albait gehien aprobetxatzea argi naturala, eta pertsianak behar bezala erabiltzea, eguzkiaren beroa eguzkiaren beroa aprobetxatu eta hotzetik isolatzeko.
- Ez ireki leihoak berokuntza piztuta dagoelarik; horren ordez, erradiadoreak erregulatu.
- Mugikortasun jasangarriaren alde egin ahal den guztietan: ibilgailu pribatu motorduna hartu ordez oinez, bizikletaz edo garraio publikoan egin joan-etorriak.
- Igoailua erabili ordez eskaileretatik igo eta jaitsi.
- Enpresa-zentroa uzten dugunean, jakitun izan behar dugu badagoela iturri berriztagarrietatik datorren energia bakarrik merkaturatzen duten zenbait enpresa.

7.2. Uraren kudeaketa

- Ura isurtzen duten iturri eta zisternak konpondu.
- Kargatzeko bi modu dituzten zisternak egoki erabili.
- Presio-mugatzaile, barreagailu edo zurrusta-haustekoak instalatu iturri eta dutxetan, kontsumoa gutxitzeko.
- Tenporizatorak dituzten iturriak instalatu, irekita gera ez daitezten.
- Uraren faktura aztertu, benetako kontsumoa zein den jakiteko, eta kontrolatu ahal izateko. Gastua ohikoaz kanpokoa gertatuz gero, pentsatzekoa da nonbaitetik ura isurtzen ari dela.

7.3. Produktu eta hondakinen kontsumoaren kudeaketa

- Produktu eta enpresa lokalei lehenetsuna eman. Horrek, besteak beste, garraioan kontsumitzen den energia murrizten du.
- Erosketa arduratsuen alorreko irizpideei alderdi soziala gehitu. Duintasunaren kontrako egoeretan edo haurren esplotazioaren bitartez eginak izan daitezkeen produktuak ekidin.
- Berriri erabili eta kargatu daitezkeen produktu eta tresnak aukeratu.
- 'Zirriborro' modua baliatu barruko dokumentuak inprimatzeko.
- Beharrezkoa ez bada, ez inprimatu orririk.
- Ahal delarik, bi aldeetatik inprimatu orriak.
- Alde batetik bakarrik inprimatutako papera barruko lanetarako berrerabili.
- Ontzien erabilera murrizten duten produktuak aukeratu erostean, edo itzultzekoak erabili. Hornitzaileei kezka horiek helarazi, mezuari zabalkundea emate aldera.
- Lehenetsuna eman produktu ekologikoei, ekoetiketa dutenei, osagai kaltegarri gutxien dutenei eta funtzionatzean energia eta ur gutxien kontsumitzen dutenei.
- Ongi kontrolatu biltegian gordetakoak, ez daitezen iraungi.
- Metodologiak ezarri prozesuetan, produktuen erabileran efikazago eta eraginkorra izateko.
- Fabrikatzaile eta hornitzaileen jarraibideak aintzat hartu.
- Kontsumitutako produktuetatik eta burututako prozesuetatik sortzen diren hondakinak modu egokian kudeatu behar dira, beren ezaugarriak kontuan izanik. Jatorrian bereizi, ongi isolaturik biltegiratu eta modu egokian gorde eta kudeatzen direlarik, ingurunean kalterik ez dutela eragingo bermatzen da.
- Beti ere gogoan izan behar dira hiru printzipio hauek: murriztu, berrerabili eta birziklatu.
- Ez baliatu hustubide eta komunak hondakinak botatzeko.

8. EKOETIKETAK

Erosi behar ditugun produktuen artean etiketa horietakoren bat ikusten dugunean, lagungarri izango zaigu erabakitzeko, haiek diseinatu eta ekoiztean kontuan hartu diren irizpideen berri ematen baitigute, eta, hartara, gure jarduera ere ekologikoagoa izango da.

Ekoetiketa ohikoenetako batzuk erakusten dira ondoren.





NOT TESTED ON ANIMALS



NOT TESTED ON ANIMALS



9. ZER GEHIAGO EGIN DEZAKEGU?

Erraz eta kosturik gabe gauzatzeko moduko hainbat proposamen egin dira eskuliburu honetan, gure enpresak arduratsuak izan daitezten, eta ingurumena-
rekiko begirunez joka dezaten. Horiek geure egin eta gure inguruan zabaltzen laguntzea bera zeregin handia da.

Horiez gain, badira jarduteko beste aukera batzuk ere, geure buruari planteatzen diezazkiokegunak, baina, horiek bai, nolabaiteko inbertsio ekonomikoa eskatzen dutenak. Horiek ezagutzera ematea beste asmorik ez du atal honek. Eskuliburu honek eraginik badu, eta enpresak sentsibilizatzen badira, beharbada aurrerago ere jo nahiko duzue jasangarritasunaren bidetik.

10.2. Ingurumen-aztarnak

Gure ingurumen-inpaktuari buruzko informazioa zuzenean jasotzen duten zenbait adierazle daude. Ematen dituzten datuek hobekuntza-helburuak finkatzeko aukera ematen dute.

- **Aztarna ekologikoak** gizakiaren naturaren gaineko eskaria eta biosferak baliabideak birsortzeko duen ahalmena alderatzen ditu. Bada negoziotarako aldaera bat.



10.1. Ingurumenkudeaketako sistemak

Ingurumen-kudeaketako sistema propio ezartzea hobeto egokitzen da erreallitateari. Gainera, ISO 14001, EMAS edo Ekoscan® gisako ziurtagiri bat lortuz gero, bereizi egiten gara besterengandik, eta bezeroak edo hainbat sektore erakar ditzake horrek.



- **Aztarna hidrikoak** kontsumitzaile edo produktu jakin baten zuzenean nahiz zeharkako ur-kontsumoa adierazten du. Datu bat: kafe kizarakada bat hartzeko 140 litro ur behar dira.
- **Karbono-aztarnak** pertsona, produktu edo jarduera jakin batek zuzenean nahiz zeharka sortzen dituen berotegi-efektuko gasen kopuru osoa neurtzen du.



10.3. Konpentsazio-neurriak

Ingurumen-inpaktua arintzeko gai ez garenean, **ingurumen - konpentsazioen** aukera geratzen zaigu artean.

Erkidego, eskualde, herri eta natur inguru-nee, proiektu jakin batek ezinbestez saihestu, zuzendu, arindu edo ordeztu ezin direnean— berekin dakartzan inpaktu edo eragin negatiboen ordainetan zer edo zer ematera zuzendutako jarduerak dira.

Esate baterako, ingurumenaren alorreko erakunde bati laguntzea, zuhaitz landaketa batean parte hartzea edo beste.

10.4. Prestakuntza

Eta, jakina, beti dago prestakuntzan murgiltzeko aukera. Ikastaroetan, lantegietan, esperientziak trukatzeko foroetan eta bestetan parte hartzeak aukera emango digu aukera berrien jakitun izateko, lan-filosofia hau sendotzeko eta, batez ere, geure buruari helburu berriak jartzeko, etengabeko bilakaeran.





**INGURUMEN-JARDUNBIDE
EGOKIEN ESKULIBURUA**
**ERDI AROKO HIRIGUNEKO
ENPRESA ZENTROKO ENPRESENTZAT**